ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2016ko azaroaren 25a, ostirala • 132 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

**Hasierako onarpena ematea 2017ko aurrekontuari**

Lapuebla de Labarcako udalbatzak, 2016ko azaroaren 17ko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion 2017ko aurrekontu orokorrari. Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoaren, 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, agiri hori hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, kontuhartzailetzan, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkez diezazkioten udalbatzari, aipatutako foru arauaren 17. artikuluan xedatutako eran.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onartutzat joko da, halaxe xedatzen baitu lehenago aipatutako foru arauak 15.1 artikuluan.

Erreklamazioak aurkezten badira, Udalbatzak hilabete izango du erreklamazio horiek ebazteko, jendaurreko erakustaldia bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurrekontua behin betiko onartzeko egintzan erreklamazioak ebazten ez badira, ez direla onartu esan nahiko du.

Lapuebla de Labarca, 2016ko azaroaren 17a

*Alkatea*
*MAIDER MURILLO TREVIÑO*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.11.25 06:42:57 Z